



Lehenko urteko sagardo txapelketan Herrero, Barkaiztegi eta Zelaia eraman zuten trofeoa.

Txantxangorrik XX. Sagardo Txapelketa gaur

■ Txapelketa arratsaldeko 20:00etan izango da ■ Urteroko 15 sagardozealeak aurkeztuko dira aurten ere ■ Afaltzera joango diren ia 160 lagunek aukeratzen dituzte sagardo onenak.

DENA prest dago Txantxangorriko XX. Sagardo Txapelketarako. Gaur izango da arratsaldeko 20:00etan eta urtero bezala jendetza bilduko da. Txantxangorri soziedadean 1984garren urtean hasi ziren sagardo lehiaketa egiten eta ordu ezkerotik urtero egiten jarraitu dute, giro polita egoten da-eta.

Aurtengoan ere betiko 15 sagardozealeak aurkeztuko dira: Alzueta, Rufino, Otsuenea, Oiarbide, Eizmendi, Iparagirre, Alberro, Zelaia, Bereziartua, Astarbe, Txintxua, Herrero, Barkaiztegi, Petritegi eta Eula. Guztira 156 lagun biltzen dira afaltzeko, soziedadean jartzen dituzten kanpoko mahaietan ez baitago gehiagorentzat lekurik. Afaltzera joaten direnak egiten dute epaile lana. Txandaka 4na sagardo botila pasatzen dira mahai guztietatik eta afaltzen daudenak puntuak ematen

dizkiote sagardoari.

Zaindutako arauak

Agustin Urretabizkaia sagardo lehiaketa antolatzen aritzen da, beste lagun batzuekin batera, eta berak dionez hasieran ez zaio sagardoari gustua hain ondo hartzen eta horregatik sagardo ezberdinak rotatzen joateko komeni dela dio. Sagardo botilek erreferentzia zenbaki bat daramakite eta horrela *juradoak* ezin du sagardo nongoa den jakin. Afalostean puntu guztiakin ordenagailuan kalkuluak egin eta gero, zein zenbakik irabazi duen jakiten da. Emozio handiko momentua izaten da, eta *Aterpe* eta Garin bertsolariak ematen zaie irabazleen izena daramakiten sobrea eta bertsotan botatzen dute zeinek eramango duen txapela.

Menu bera beti

Urte guzti hauetan menua beti

berdina izan da: arrautza egosia, bakailua *bizkaina* erara, bakailua saltsa berdean, saiheskia eta Urbasako gazta. Agustin Urretabizkaia dioenez arrautza egosia hasieran jartzen da, sagardoari gustua hobeto hartzen zaiolako arrautza egosia aurretik hartuta.

Edateko noski sagardoa, nahi adina, guztira 750 botila eramaten dituzte-eta, sagardo egileek. Sagardoa aurreko urteko uztakoa izaten da, urteko sagardoa sasoi honetan oraindik ere prestatzen egoten dira eta.

Ondoren, Peña Otaño, Xalaparta eta Elur-Txori

Txantxangorriko sagardo lehiaketa elkarrekin urtero antolatzen diren bat da. Txantxangorrikoa eta gero, Peña Otaño egingo du hurrena, urriaren 10ean. Peña Otaño iaz hasi zen txapelketa egiten eta erantzuna ikusita urtero egitea erabaki du elkarrekin. Ondorenean, Elur-Txori egingo du. Elur-Txori elkarrekin da txapelketa hori Hernanin hasi zuena eta iaz bete zituen 20 urte. Azken txapelketa, Xalaparta elkarrekin da, aurten 10garrena. □

Aurreko urteetan trofeoa eraman dutenak

Urtea	Irabazlea	2garrena	3garrena
2002	Herrero	Barkaiztegi	Zelaia
2001	Barkaiztegi	Eizmendi	Alzuta
2000	Rufino	Otsuenea	Astarbe
1999	Herrero	Barkaiztegi	Petritegi
1998	Alzuta	Herrero	Barkaiztegi
1997	Rufino	Barkaiztegi	Bereziartua

ZABOR BILTZEA

Multa jarriko zaio zabor-kontainer ondoan kotxea uzten duenari

HERNANIKO Udaltzaingoak gogoratu du, zabor-kontainer ondoan ezin dela kotxea aparkatu. Zaborra biltzen duen kamioiak zailtasun handiak izaten ditu kaleetan maniobrak egin eta pasatzeko, eta debekua horregatik dago jarrita. Udaltzaingoak esan du multa jarriko zaiela gaizki aparkatzen duten gidariei. □

Hirigintzak 9 puntu tratatuko ditu gaur

IÑAKI Arratibel buru dela gaur egingo da legegintzaldi honetako aurreneko Hirigintza Batzordea, eta 9 puntu izango ditu mahai gainean. Besteak beste: Ereñotzuko SU-32.6 area banatzeko proiektua aldatzea eta Akarregiko sektorean Aktuazio Unitatearen Estatutu eta Oinarri aldaketa onartzea. Beste lau puntu aipagarrienak dira *Iparkal SAL*, *Metallurgicas Lastaola SA*, *Atofina España SA* eta *Plastinox SL* enpresen eskaerak zenbait aktibitate industrial martxan jartzeko edo orain artekoa haunditzeko. □

Manifestaziorako deia

EZKER Abertzaleak manifestazioa deitu du larunbaterako Bilbon, *Apartheid Ez. Autodeterminazioa* lemarekin. Hernaniko Ezker Abertzaleak joateko deia egin du eta autobusak jarri ditu. Txartelak Garin eta Txili tabernetan daude. Autobusa 15:00etan aterako da. □

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Eguneko menuak
Asteburuan afariak
Florida 54
943 33 03 97

OPEL Auto Hernani

Orain helbide berrian GALARRETA

ZINKO-ENEAK

Orain arte Karrozeri zerbitzua: Akarregi 25

LAND ROVER

VOLVO

OPEL Auto Hernani

Jauregi bailara 76

Salmenta Tailerrak:

PLAY - mekanikoa - elektrizitatea - Finantziarioa

HOSPITALA

GASOLINERA

OPEL Auto Hernani - Jauregi bailara 76 - Tel.: 943 55 25 46 - 943 55 77 25

HERNANI HIZKUNTZAK ENGLISH
Gure Ingelesetxea

Zorionak! Aitziber (bikain), Gari, Ainara, Mikel (bikain), Edurne, Harri, Paul, Jose Luis eta Unai Cambridge FCE edo Advanced azterketa gaintzeagatik.

MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan / Joe
943 33 11 08 -
KALE NAGUSIA 41, 1



YONE boutique
Kale Nagusia 63
Hasi dugu Udazken/neguko denboraldia.
Atsegin haundiz zuretzat.
Erropa dotoreenak zuretzat dauzkagu.

Ezker Abertzaleak batzarra eta manifestazioa deitu ditu gaurko, Herrerako gertaeragatik

■ Batzarra goizeko 11:00etan egingo da, eta manifestazioa 20:00etan ■ Ostiralean Arkaitz Otazua zenari egingo zaion omenaldira joateko deia egin du.

HERNANIKO Ezker Abertzaleak batzarra eta manifestazioa deitu ditu gaurko Arabako Herrera mendatean izandako gertaeraren inguruan. Batzarra goizeko 11:00etarako dago deituta eta Gudarien plazan izango da. Manifestazioa, berriz, arratsaldeko

20:00etarako konbokatuta du Ezker Abertzaleak. Era berean, Arkaitz Otazua zenari ostiralean omenaldia egingo zaio Bilboko Arenalean, 19:30etan, eta Hernaniko Ezker Abertzaleak ekitaldi horretara joateko deia egin die herritarrei.

Ekain Ruizen panela bota
Nafar kalean Ekain Ruizen panela dago jarrita eta aste honetan (astelehenetik astearterako gauean) botata azaldu da. Ezker Abertzaleko iturriek adierazi dute Ertzaintzak egingandako lana izan dela eta gertakaria salatu egin dute. □

Kriskitiñak trikitilari gazteen txapelketa antolatu du iganderako

■ Gipuzkoako 6 bikotek hartuko dute parte, igandean, 12:00etan, Gudarien plazan.

TRIKITILARI gazteen Vgarren txapelketa jokatu da Hernanin datorren igandean, Kriskitiña dantza taldeak antolatuta. 16 urtetik beherako gazteek hartuko dute parte txapelketan, guztira 6 bikote, eta gipuzkoarrak: Hernani, Lasarte, Tolosa, Andoain, Itziar eta Baliarraingoak. Hernaniarrak Egoitz Alkorta eta Leire Aiape dira.



Partidu bukaeran ez ziren gustora hernaniarrak.

Urteroko txapelketa

Kriskitiña elkarteak azken bost urtetan antolatu du trikitilari gazteen txapelketa eta erantzun ona espero dute aurten ere. Trikitilariak hiru pieza jo beharko dituzte: trikitixa, porrusalda eta fandango edo arinarina. Epaiak baloratu dituzte doinuaren zailtasuna, soinua nola jo duten, panderoa nola,

eta erritmoa eta kantua. Epaiak trikitixa munduko adituak izango dira. Sariak parte hartzaile guztiek izango dituzte.

Trikitilari gazteen txapelketa datorren igandean jokatu da, irailak 21, eguerdiko 12:00etan, Gudarien plazan. □

■ HITZ BITAN

✓ PROTEKZIOKO ETXEA SAGASTIAN

Lurra lortzeko tramitea Jaurlaritzak daramaki. Sagastian protekzioko etxeak dihoaz eta atzoko Kronikan, gaizki ulertua medio, argitaratu zen Udala ari dela lurak bereganatzeko tramiteekin. Lurak lortzeko prozesu hori, ordea, Eusko Jaurlaritzak daramaki eta ez Udalak, eta Gasteizko Gobernura jo behar da edozein kontakturako.

✓ JUBILATUEN ETXEA

Mantenimendu gimnasia. Mantenimendu gimnasia ikastaroa irailaren 22an hasiko da kiroldegian. Karneta egun horretan bertan kiroldegiko atean jasoko dute kurtsora aurreneko aldiz dihoazenez. □

Gandiara eskursioa. Irailaren 27an goizeko 08:00etan dute zita Gandiara joateko izena eman dutenek.

✓ AHTREN AURKAKO MARTXA

Larunbat honetan Osiñagara martxa. AHT gelditu! Elkarlanak Osiñagara martxa bat antolatu du, Abiadura Handiko Trenaren obra egiteko lurra aztertze lanak hasi direla-eta. Larunbat honetan goizeko 11:00etan aterako da Gudarien plazatik eta Osiñagan trenaren proiektuak afektatzen dituen bazterrak inguratuko ditu. Herrira bueltatzean, eguerdiko 13:00etan, enkartelada egingo da. Osiñagako Auzo Elkarteak babesa eman dio martxari eta auzotarrak parte hartzerantz animatu ditu. Auzo Elkartearen iritziz "AHTk ondorio latzak utziko ditu Osiñagan" eta guztiz ados daude larunbateko martxarekin. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:	943 550093
▶ Udaltzaingoa:	943 333288
▶ DYA:	943 464622
▶ Autobusak:	943 556662
▶ Anbulatorioa:	943 006666
▶ Jokalari anonimoak:	943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
▶ Gaez: Rodriguez
Lasarte. Nagusia 42
☎ 943 361774



Ostegun, larunbat eta igandean jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: **Zalakain - Olazar / Iturralde - Urrutia**
2. partidua: **Altuna II - Eizagirre / Altuna I - Lizaso**
3. partidua: **Elizalde - Aizpuru / Agirresarobe - Etxabe**
4. partidua: **Zeberio I - Badiola / Larrea - Urko**

Gunea, zerbezeria Hernanin

25 zerbezetatik gora aukeran, eta garagardotegiko menua, 300 m²-ko lokalean

Datorren ostegunetik aurrera **Gunea** garagardotegi berria zabalduko da Hernanin, Argarain kalean, (**Antziolako rektaren haseran**). Gunea zerbezeria **goizeko 09:30etatik** egongo da irekita, eta 25 zerbeza klasetik gora izango ditu aukeran, eta horietatik 6 kañatik serbituta, 5 graduko tenperaturan: **Leffe** (gorria eta beltza), **Stella Artois**, **Beck's**, **Hoegaarden**, **Bass...** Garagardo aleman, belga eta ingelesik onenak, beste askorekin batean.

Guneak 60 lagunentzako jantokia du eta otordu aukera ederra bezain goxoa ere eskainiko du, nola bazkaltzeko hala afaltzeko. Batetik, **Zerbezeriko menua: kodilloa, saltxitxak, pierrade, fondue...** Horretaz gain, Guneak aukera handia eskainiko du menu berezi eta eguneko menuan.

Zerbezeriko menuaz gain, menu bereziak eta eguneko menua. 60 lagunentzako tokia.

Hernaniko gizarte eta kultur bizitzaren bilgunea

Inaugurazioa
datorren ostegunean
irailaren 25ean
(20:00-22:00)

Jendearen bilgunea

Gunea garagardotegiaren helburua da herriko bizitza sozial eta kultur aktibitatearen gunea izatea, eta bide horretan egingo du lan. **Gunean** ekitaldiak antolatzeko zabalik gaude.



- Eguneko menua
- Garagardotegiko menua
- Garagardo aukera zabala
- Pierrade, Fondue, Kodilloa, Saltxitxak...

